

2015-2018  
Udal kudeaketa  
despotikoaren kronika



**ehbildu**

GERNIKA-LUMO



Liburu hau Gernika-Lumoko EH Bilduk egin du, eskuragarri izan dituen datu ofizialetan oinarrituta.

Eskubide osoa duzu partekatu, zabaldu eta kopiak egiteko.



# Hitzaurrea

Gernika-Lumoko EH Bildu oposizioan gaudenetik —duela hiru urte— Udal Gobernuaren eta bere kudeaketaren jarraipena eta fiskalizazioa egiten aritu gara. Nahiz eta, hasiera batean, kolaboratzailea izaten saiatu eta gure proposamen, proiektu...ak aurrera ateratzeko borondatea agertu, eta beraien proposamenetan ahalik eta ekarpen eta hobekuntza gehien egiten ahalegindu, ia beti itxikeria aurkitu dugu eta ezinezkoa egin zaigu lankidetzatza. Horren aurrean, proposamen propio eta positiboak eskaintzen eta garatzen jarraitu dugu, nahiz eta, nahi eta nahi ez, salaketa eta fiskalizazioak pisua hartu duen.

Herritarrekiko jarrera ez da askoz hobea hainbat kasutan. Eskaerei ez zaie erantzuten, herritarrek, sarritan, hartu ere ez dira egiten eta parte hartzea oso mugatua —nulia ez esatearren— da. Udaleko arduradun politikoak herritarren mesedetan jarduteko gaude, hori da gure ardura, proposamenak gustatu zein ez, erantzuna eta irtenbidea eman behar zaie.

Hori horrela, Udal Gobernuaren funtzionamendu kaotikoa eta planifikazio gabea salatze beharria izan dugu. Hainbat kasutan legea ez da betetzen, herritarrekiko jarrera ez da egokia, Udal Gobernuak gustuko ez duena automatikoki baztertzen da eta parte hartzerik apenas dago. Hau guztia azalartzea eta salatzea du helburu LIBURU BELTZA honek.

Legegintzaldi hasieratik 2018ko irailerara bitarteko datuak eta gertakariak biltzen ditu, eta jasotzen den informazioa dokumentu eta akta ofizialetan oinarrituta dago. Izan daiteke, hala ere, liburuaren kaleratzeetik, planteatutako hainbat arazori irtenbidea ematea, edo egoera, besterik gabe, aldatzea.

***Zure ekarpenak edo ideak partekatu nahi badituzu  
edo gai konkretu baten inguruan gehiago jakin nahi  
izatekotan, jo guregana:***



**688 73 48 94**  
***gernika@ehbildu.eus***



# Aurkibidea

<b>1.- Inprobisazioa langilerian</b>	06	FUNTZIONAMENDU OROKORRA
<b>2.- Inprobisazioa inbertsioetan</b>	07	
<b>3.- Inprobisazioa kontratazioan</b>	08	
<b>4.- Lege urraketak eta parte hartze falta aurrekontuetan</b>	09	
<b>5.- Hartzen dituzten konpromisoak ez betetzea</b>	10	GOBERNU EREDUA. LEGE URRAKETAK EDO SAIHESTEAK
<b>6.- Diru laguntzak txarto erabiltzea</b>	11	
<b>7.- Kontratu “txikiak”</b>	12	
<b>8.- Legez kontrako fakturak</b>	13	
<b>9.- Entxufismoa: prentsa arduraduna</b>	14	
<b>10.- Entxufismoa: lorezaintza</b>	15	
<b>11.- Entxufismoa: jubilatuen taberna</b>	16	
<b>12.- Diru laguntzak</b>	17	
<b>13.- Zentsura</b>	18	GOBERNU EREDUA. GORROÑISMOA
<b>14.- Erabakiak atzera botatzea</b>	19	
<b>15.- Udal baliabideen erabilera</b>	20	



<b>16.- Informazio eskubidea</b>	21	HERRITARREN ESKUBIDEAK
<b>17.- Kale eta espazio publikoen erabilera</b>	22	UDALAREKIN
<b>18.- Gardentasuna</b>	23	HARTU EMANETAN
<b>19.- Berdintasun zerbitzua</b>	24	
<b>20.- Osoko bilkuretan parte hartzeko eskubidea</b>	25	
<b>21.- Udaletxera sarbidea</b>	26	DIRU
<b>22.- Diru xahuketa kontratazioan</b>	27	XAHUKETA
<b>23.- Ota/tao zerbitzua</b>	28	
<b>24.- Udal aterpetxea</b>	29	
<b>25.- Bidaia “ofizialak”</b>	30	



# 1. *Inprobisazioa langilerian*

*Udaleko plantillan hainbat jubilazio eman dira legegintzaldi honetan. Hauek aurreikusi egin daitezke — ez bajekin gertatzen den moduan—; guztietan arduradun politikoek hilabetee-tako aurrerapenarekin jakin izan dute. Hala eta guzti ere, ez da irtenbiderik planteatu eta hainbat ondorio izan ditu langileengan, herritarrengan zein zerbitzuaren kalitatean.*

Egoera arazo bihurtu arte ez da neurririk hartzen eta honek legez kanpoko jokabideak, zerbitzuen kalitatea urritzea, langileen eskubideak urratzea eta udal baliabide ekonomikoen xahutzea ekarri ditu.

## **📄 LEGE AIPAMENA:**

Errelebo kontratuari esker langileek jubilazioa 4 urte aurreratu dezakete; tarte horretan %100eko jarduna egin beharrean, %25a egiten dute, baina soldata osoa jasota (soldataren %25a udalak ordaintzen du eta gainontzekoa gizarte segurantzak).

*Ley 27/2011, de 1 de agosto, sobre actualización, adecuación y modernización del sistema de Seguridad Social.*

## **👤 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

- 2 langileri errelebo kontraturako duten eskubidea urratu zaie.
- Osatuta dauden lan poltsak berritu dira, eta agortuta edo agortzear daudenak bere horretan utzi dira.
- Lanbide ekimeneko zuzendaritza lanpostua gutxienez urte eta erdiz bete gabe egongo da.
- Errelebo kontratua aitortu ez zaion langileak dagozkionak baino ordu gehiago lan egin dituzenez, Udalak legez kanpoko “irtenbideak” bilatzen ditu: era ilegalean ordaintzea. Horrela, jada lanean egon ez zen bitartean ordaintzen jarraitu zitzaion langileari.
- Langileria arloko administrariaren postua horretarako beharrezko formaziorik ez duen pertsona batek bete du; ondorioz, beste langile batek erakutsi behar dio —bere lanak alde batera utzita— eta soldata plus bat ezarri behar izan zaio —bere lanak ez direnak egin behar izatea hala nola konpentsatzeko—.
- Langileria arloan inprobisatzeak, gutxienez, 38.957,45€ko kostu gehigarria eragingo du Gernika-Lumoko diru publikoan.



## 2. *Inprobisazioa inbertsioetan*

*Gernika-Lumoko udalean inbertsioen erabilpen elektoralis-  
ta egiten da eta gerakina —aurrekontu urtean gastatu ez  
dena— alkatearen kapritxoetarako edo inon eztabaidatu  
ez diren proiektuetarako erabiltzen da: behin eta berriro  
inbertsioak iragarri eta gero ez dira gauzatzen. Are gehiago,  
inon iragarrita eta adostuta ez daudenak egiten dira,  
agindutakoak baino lehen.*

2017ko aurrekontuetan, gerakineko diruarekin egiteko onartu ziren proiektuak:

- **PASARELA CORREOS-ASTRA (100€\*).** Ez zen egin.  
(2018ko aurrekontuetan berriz jaso dute, 736.000€ko diru izendapenarekin.)
- **URBANIZACIÓN IDURGO (100€\*).** Ez zen egin.  
(2018ko aurrekontuetan berriz jaso dute, 159.000€ko diru izendapenarekin.)
- **DERRIBO GRADA URBIETA (100€\*).** Ez zen egin.  
(2018ko aurrekontuetan berriz jaso dute, 100€ko diru izendapenarekin.)
- **SEMAFORO CRUECE SAN JUAN-DON TELLO (100€\*).** Ez zen egin.  
(2018ko aurrekontuetan ez da jaso. Argi dago ez zutela egiteko asmorik.)
- **BAÑO REFUGIO PASEALEKU (100€\*).** Egiten hasi zen baina 2018an bukatu zen.  
(Proiektua bukatuta dago)

2017an 957.398,32€ txertatu ziren aurrekontura, eta, partida horietan gehitu beharko liratekeen arren, beste gauza batzuetarako erabili dira, nahiz eta urgentziazkoak izan ez. Adibidez:

-46.000€ erraldoiak erosteko.

-96.800€ "Gudariei omenaldia" Pasealekuko eskultura.

-21.500€ aurkeztu eta hainbat hilabetetan zehar ikusi ez dugun "Caseta de las letras" egiteko.

Diru horrekin iragarri eta aurrekontuetan onartutako hainbat inbertsio egin zitezkeen.

\*100€tako izendapena egiten dira partida batzuetan, gerakinarekin ordaintzeko.

### **👤 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

-Herritarrek ez duten beraien dirua nola inbertituko den jakiteko inongo baliabiderik, onartzen diren proiektuak ez direlako egiten.

-Aurrekontuak propaganda elektoralerako erabiltzen dira proiektu berdina behin eta berriz salduta.

-Herritarrek edo herriko eragileek eskatutako proiektuak jasotzen dira hauek pozik uzteko, eta gero ez dira egiten; Don Telloko semaforoa kasu, Eskola Bidean ekimenean landu eta proposatu zena.



# 3. *Inprobisazioa kontratazioan*

*Kontratazioan inprobisazioa eguneroko ogia da: kontratua noiz bukatuko den aurrez jakina den arren —kontratua bera sinatzen denetik, hau da, urteak—, azken momentura arte ez dira plegu berriak lantzen hasten. Honek —lantzeko tartea mugatu, presaz jokatu eta, ondorioz, zerbitzuaren kalitatean eragiteaz gain— hainbat eta hainbat zerbitzu udalaren utzikeriaren ondorioz etenda geratzea ekarri du, herritarren kaltetan.*

Pleguetan atzerapen hau onargariagoa litzateke hauen lanketa zabala balitz eta, herritarren edo inplikaturako eragileen ekarpenak jasotzeko, prozesua konplexua. Errealitatea, baina, hurrengo da: plegu gehienetan ez da oposizioarekin behar bezalako lanketarik egiten, herritarrekin inolakoa eta oinarriak aurreko kontratazioko berdinak izaten dira hein handi batean. Hala eta guzti ere, utzikeria tarteko, berandu egiten dira eta zerbitzuak etenda geratzen dira.

## HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:

Hainbat dira herrian tarte batez etenda geratu diren zerbitzuak, eta euretako batzuk, gainera, premiazkoak eta ezinbestekoak:

- **BERDINTASUN ZERBITZUA.**

Urte bete baino gehiagoz zerbitzu gabe (2016ko ekainean eten zen eta 2018ko irailean jarri da berriz martxan) eta kontratazio berriak %25eko murrizketarekin.

- **DROGOMENPEKOTASUN ZERBITZUA.**

Urte batez zerbitzu gabe (oraindik ez da martxan jarri eta, gutxienez, hiru hilabate pasatuko dira martxan egoterako) eta gerorako bermerik gabe.

- **SAN JUAN IBARRAKO TABERNA**

Bi hilabetez taberna itxita egon zen

- **LAN PREBENTZIOA**

4 hilabetebez zerbitzu gabe: ondorioz, udaleko langileek ez zuten 2017an errekonozimendu medikorik izan, eta lan prebentziorako legeak agintzen dituen lau bileretatik bi bakarrik egin ziren.

- **SANTANAPEKO TABERNA**

la urte batez itxita eta oraindik planteamendurik ez dago mahai gainean, nahiz eta oposiziotik behin eta berriz galdetu dugun gai honen inguruan.





# 4. *Hartzen dituzten konpromisoak ez betetzea*

*Udal bat kudeatzerakoan hainbat izan daitezke moduak, lehenetasunak... Horretan normala da partidu politiko ezberdinen artean adostasunak urriak izatea. Normala ez dena, edo izan beharko ez litzaketena, Udal Gobernuak gauzak proposatu, onartu eta agindu arren ez betetzea da. Eta hori, praktika orokortua da Gernika-Lumoko Udalean.*

## • OTAREN KONTRATUA

3urte daramatza kontratu gabe; horrez gain oraindik zenbatekoa den zehazki ez dakigun zorra dago, eta hilean-hilean gehitzen doana, gainera. Aparkatzeko arazoari ez zaio irtenbiderik ematen eta OTA kudeatzen duen enpresari ilegalki ordaintzen zaio.

## • PLAZA, KALE, ITURRI...I EUSKALDUN BERRIA IZENA JARTZEA

Duela ia bi urte onartu zen Euskararen Egunaren testuinguruan, oraindik ez da bete —eta ez dirudi betekede denik— nahiz eta plazak inaguratu diren.

## • UDALEKO LANPOSTUEN BALORAZIORAKO DIRU PROPOSAMENA

Agindu zutena baino urte eta erdi beranduago egin zuten diru proposamena.

## • LGTBI+ KOLOREKIN ESPAZIO PUBLIKO BAT PINTATZEKO KONPROMISOA

Agindutakoa baino urte bat beranduago egin zen, nahiz eta behin eta berriz eskatu genuen. Aurton gauzatu da, egin ezean adierazpenik onartuko ez dugula esan diegulako.

## • GOBERNU ONAREN KODEA MARTXAN JARRIKO DUTELA (HAUTESKUNDEETAKO PROGRAMAN ERE ESAN ZUTEN)

Hauteskunde programan hitzeman eta duela urte bat, galdetu genuenean, berretsi zuten. Oraindik ez da pausu bakar bat ere eman.

## • HILETA ZIBILEN ORDENANTZA

Herritar talde baten eskaerari urte betez jaramonik egin ez eta ez ohiko bilkura bat eskatu behar izan dugu EH Bildutik proposamena lantzeko. 2018ko irailean oraindik ez da onartu, 2017ko irailean egingo zela esan zen arren.

## • BIDEGORRIKO SEINALEAK

Joan den urte bukaeran egiteko konpromisoa hartu zuten, oraindik ez dute bidegorrian segurtasuna hobetzeko seinalerik jarri.

## • 2015eko HAUTESKUNDEETAKO PROGRAMATIK BETE EZ DUTENA

Zoru industrialean irisgarritasuna hobetzea.

Ibarrako Elkartegia 2016ko ekainerako bukatzea.

Astran Lanbide Heziketako zentroa egitea.

Euskara bultzatzea.

Turismo jasangarrirako itun bat egitea sektoreko eragileekin.

Pasilekuan liburutegia egitea.



# 5. *Lege urraketak eta parte hartzerik ez aurrekontuetan*

*Udal Gobernuak, behin eta berriz, parte hartzearen garrantziaz hitz egiten duen arren, hauteskunde kanpainako slogan hutsa da; ez dute betetzeko inolako borondaterik. Urteak daramatzagu Gernika-Lumon aurrekontuei buruz hausnartu eta lehenetsunak finkatzeko prozesu propio bat aldarrikatzen eta hori lortzera bidean lanketak egiten; alperrik, ordea.*

Aurrekontuak lantzeko eta, ondoren, hauek publikatzeko irizpideak araututa daude eta udal guztiek bete beharreko araudia da, nahiz eta, argi dagoenez, Gernikan jaramonik egin ez.

## **LEGE AIPAMENA:**

### • **DATA eta EPEAK:**

	<b>LEGEAK</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>
<b>Proposamena aurkeztea</b>	urriaren 15a	martxoaren 4a	martxoaren 1a	martxoaren 16a
<b>Onarpena</b>	abenduaren 31a	martxoaren 30a	apirilaren 12a	martxoaren 30a
<b>Lanketarako tartea</b>	bi hilabete eta erdi (77 egun)	26 egun	43 egun	13 egun

### • **GARDENTASUNA:**

- Aurrekontuak argitara emango dira osorik eta eguneratuta modu erraz eta grafiko batean; diru sarrera eta gastuei buruzko oinarritzko informazioa emango da. **(Ez da egiten).**
- Ordezkaritza politikokoek eta zuzendaritzako langileek jasotzen dituzten ordansariak. **(Aurkitzeko zaila).**
- Urtero programa bat onetsi, herritarrek kontu publikoetan parte hartzea errazteko. **(Ez da egiten).**
- Beharrezko tresnak eta baliabideak aurreikusiko dituzte parte hartzerako eta horiek urteroko aurrekontuetan islatuko dira. **(Ez da egiten).**

## **HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

- Ez da aurrekontuen legea betetzen.
- Herritarrek ez dute aurrekontuetan parte hartzeko ia aukerarik, eta, gainera, behin onartuta oso zaila da —kasu askotan ezinezkoa, informazioa egon ere ez dagoelako— beraiei buruzko informazio argia bilatzea.



# 6. Diru laguntzak txarto erabiltzea

***2013an Gernikan bidegorria egiteko proiektuaren kostuaren %50eko diru laguntza lortu zen, hau da, 80.000€ko diru laguntza 2014 eta 2016 urteen artean gastatzeko. Diru hori, ordea, ez da aurkeztutako proiektuan erabili, espaloi bat egiteko baizik; ondorioz, Udala diru laguntza itzuli behar izateko eta 80.000€ galtzeko arriskuan dago.***

Aurreko legegintzaldian lehen bi zatiak egin ziren; 2015eko maiatzetik, urte eta erdi izan dituzte bidegorriaren proiektua jarraitu eta 150.000€ko inbertsioa egiteko, diru laguntza galdu nahi ez bazen, behintzat. Gobernu honek bidegorrian sinesten ez duenez, diru hori espaloi bat egiten gastatu du, eta, disimulatzeko, zati bat gorriz margotu; 18.000€ko gastua zuen zati horrek jatorrizko proiektuan eta 160.000 gastatu dira.

## **🏛️ LEGE AIPAMENA:**

Bidegorrirako diru laguntzaren deialdiaren arautegiak argi eta garbi dio diru laguntza zehazki eskatzen denerako erabili beharra dagoela; horrela ez izanez gero, Eusko Jaurlaritzak diru laguntza itzultzeko agintzea erabaki lezake. Izan ere, diru laguntzaren justifikazioa egin beharra dago, eta, kasu honetan, egin denak ez du inondik inora zer ikusirik dirulaguntza jaso zuen proiektuarekin.

*AGINDUA, 2014ko ekainaren 24koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalei diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.*

*20. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.*

*5.– Diru-laguntza onartu den jarduerarako erabiltzea, baldintzak aldatzeari buruzko 23. artikuluan zehaztutakoa aplikagarri denean salbu, eta proiektuak lizentziak, baimenak eta gainerako nahitaezko sektore-betekizunak beteta gauzatzea, behar bezala exekutatzeko.*

## **👥 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

Beharrezanean erantzuten ez dien bidegorria dugu, herritarrekin landu eta eztabaidatu zen proiektuarekin zer ikusirik ez duena. Gainera, Udal Gobernuaren jarrera ikusita, ez dago bukatuko den inolako ziurtasunik.

Diru laguntza txarto erabili izanaren ondorioa dirua itzuli behar izatea izan daiteke, hau da, 80.000€. Horrez gain, bidegorria bukatzekotan Gernika-Lumoko Udalak ordaindu beharko du, 18.000€tako gastua duen zati batean 160.000€ gastatu dituelako.



# 7. Kontratu “txikiak”

***15.000€+BEZ baino gehiagoko kontratuak prozedura irekiaren bitartez egin behar dira, legak horrela aginduta. Hau da, ezin dakiok nahi den enpresari eman: kompetentzia eta aukera berdintasuna bermatzeko prozedura irekiaren bidez konkurtsora atera beharra dago.***

***Gernika-Lumoko udalak gutxienez bi zerbitzu banatu ditu, legea bete behar ez izateko. Horrela, nahi duen enpresari eman dio zerbitzua nahi duen prezioan.***

## • GABONETAKO ARGIAK

F/2018/111/ 21.659€ ARGIAK JARTZEA. (17.900€ +BEZ).

F/2018/112/ 1.089€ ARGIAK JARTZEA 8 DE ENERON. (900€ +BEZ).

\*Guztira 18.800€ +BEZ. Kontratazio txikia baimentzen duen muga baino gehiago.

## • ERANTZUKIZUN ZIBILEKO POLIZA

F/2017/199/ 16.799,97€ EGIASA, ERANTZUKIZUN ZIBILEKO POLIZA. (13.884€ +BEZ).

F/2017/384/ 10.039,51€ EGIASA, ERANTZUKIZUN ZIBILEKO POLIZA. (8.297€ +BEZ).

\*Guztira 22.181€ +BEZ. Kontratazio txikia baimentzen duen muga baino gehiago.

## 🏛️ LEGE AIPAMENA:

9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko KONtratuena

118. artikulua. Kontratu txikien kontratu espedienteak

1.Kontratu txikiak dira kontratuen estimatutako balioa 40.000 eurokoa baino txikiagoa denean obra-kontruetan edo 15.000 euro baino gutxiago hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direneran; estatuan zentralizatutako obra, zerbitzu eta hornidurei buruz 229. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

## 👤 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:

-Beste lege urraketa bat kontratazio arloan.

-Entxufismo eta lagunkeriarako arriskua.

-Prezio hobea lortzeari eta irizpideak ezarri ahal izateari uko egitea.



# 8. Legez kontrako fakturak

***2016 urtean Alkateak erabaki zuen hiru pertsonari 1.100€ ematea (400€ biri, eta 300€ besteari), diru beharra zuten aitzakipean. Gainera, esan beharra dago horietako 2 epaitegiek lan komunitarioak egitera kondenatu zituztela. Lan horiek Gernika-Lumoko udalarentzat egin zituzten eta horren ordaintan eskatu omen zuten dirua “jateko ere ez zutelako”.***

Ez dugu zalantzan jartzen hiru pertsona horiek diru premian zeudenik, baina Alkateak ez du eskumenik horretarako eta erantzukizun falta izugarri jokatu zuen: alde batetik, legez kanpoko delako; bestetik, herrian badagoelako egoera zailean dagoen jende asko eta laguntza horiek era serio eta ahalik eta justuenean bideratu behar direlako gizarte zerbitzuetako adituen eskutik. Gainera, 300€ ematea limosna da eta ez arazo larri baten konponbidea, ezta momentuko larritasuna arindu dezakeena; bukatzeko, alkateak ez du eskumenik eta erantzukizun falta izugarria da horrela jokatea jende hau gizarte zerbitzuetara bideratu beharrean.

## **⚖️ LEGE AIPAMENA:**

Beharrezana duten herritarrentzat, Legeak Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak aurreikusten ditu, baina honetarako prozedura eta arau batzuk bete behar dira, eta ez dagokio Alkateari laguntza hauek nola banatu erabakitzea.

*AGINDUA, 2018ko martxoaren 14ko agindua (EHAA Zk. 58/2018).*

*AGINDUA, 2018ko martxoaren 14ko agindua.*

*18/2008 legea, abenduaren 23koa (EHAA Zk. 250/2008) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.*

*4/2011 DEKRETUA, urtarrilaren 18koa (EHAA Zk. 27/2011) Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa.*

*16/2017 DEKRETUA, urtarrilaren 17koa (EHAA Zk. 16/2017) Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena.*

## **👤 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

- Udal baliabideen erabilpen okerra ematen da.
- Legez diru hau jasotzea zegokionek ez dute jasoko.
- Entxufismo eta lagunkeriarako arriskua.



# 9. Entxufismoa: prentsa arduraduna

***Prentsa arduradunak 10 urte daramatza udaletik soldata jasotzen —hilean 2.339,65€—; inongo oposaketarik pasa gabe, meriturik egiaztatu gabe, euskaraz jakin gabe eta ikasteko inongo interesik gabe, Alkateak horrela erabaki duelako. Otsailean, entxufe bidez bera kontratatzeko prozesu bat zabaldu zen.***

Hasieran, kontratua zuen arren, gainontzeko urte luzeetan modu irregularrean egon da, kontraturik gabe. Behin eta berriz salatu izan da prentsa arduradunak euskara ez zekiela eta ez zela pertsona egokia lanpostu horretarako —bai PNVk oposiziotik, bai EH Bilduk orduan gobernu kide zen alkateari eskatuta—, baina ez zen lortu pertsona hau kendu eta euskaraz zekien bat jartzerik; azken kontratazio prozesuan ikusi den bezala, Alkateak interes berezia duelako pertsona hau hor mantentzean.

Kontratuen lege berria indarrean sartu baino bi aste lehenago, jadanik baimenduta ez dagoen prozedura bat erabili zen udalean lan egiten zuen pertsona entxufatzeko. Bazekiten lege berriak ez zuela “negociado sin publicidad” delakoa baimenduko, besteak beste, kompetentzia askea mugatzen duelako eta, ondorioz, kalitate hobereneko zerbitzua prezio onenean eta era garbian lortzea zailtzen duelako. Korrika eta presaka, eta legeari iruzur eginda, ekin zioten kontratazio prozesuari.

Gainera, “lehiaketa” berri hau antzerki hutsa izan da, ez da benetako negoziaketarik egon: prentsa arduradunaren enpresa eta beste bi gonbidatu zituen. Pleguetan gehienez ordainduko zaion diru kopurua zehazten da, eta horren arabera egiten dute enpresek beraien eskaintza —esan gabe doa, eskaintza, onartua izan dadin, pleguetako bera edo txikiagoa izan behar dela—. Sorpresa enpresen eskaintzetan egon da: egun dagoenak onartutako maximoa eskaini du, eta gainontzeko biek baimendutakoa baino gehiago —jakinda eskaintza horrekin zuzenean kanpo geratuko direla—. Argi eta garbi dago langile hau entxufatzeko trikimailu bat izan dela; bestela, nola uler daiteke bi enpresak esleipen baterako interesa agertu eta, gero, baimendutakoa baino eskaintza handiagoa egitea zuzen kanpoan geratzeko?

Aholkulari juridikoarekin ere antzeko gauza bat gertatu da: kasu honetan gonbidatutako hiru enpresak egungoa eta horren lankide eta lagunak izan dira. Nola ez, eskaintza hobereana egungoak egin du eta zuzenean bera kontratatu da.

## **👤 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

- Entxufismo eta lagunkeria gailentzen denez, ez da langilerik onena kontratatzen ezta aukera berdintasuna bermatzen.
- Gernikarrek ez dute lan postu hauetara aurkezteko aukerarik.
- Lehiarik ez dagoenez behar baino gehiago ordaintzen zaie.



# 10. *Entxufismoa: lorenzaintza*

***Gobernuak lorezaintzako pleguak enpresa jakin baten mesedetan egin ditu. Jarri dugun helegiteari esker hori gelditzea lortu dugu, plegu horiek berriro errepikatu beharko direlako. Kontratazio publikoaren helburua kalitatezko zerbitzua ematea izan behar da, ez interesen arabera kontratazioak manipulatzeko.***

Gorroñok interes berezia du kontratu —eta enpresa— honetan; izan ere, zerbitzuen sailean kokatuta dagoen arren, lorezaintza bereizi eta berak zuzenean kudeatzea erabaki zuen. Zeri erantzuten zion horrek? Zergatik taldeko kide zen pertsona batek zerbitzuetako sail osoa kudeatu zezakeen lorezaintza ezik? Hasieratik susmoak argiak ziren, eta denborarekin, konfirmatu egin dira.

Azken pleguetako oinarrietan susmagarria egin zitzaigun baldintza bat ezartzen zen, alkateak nahi zuen enpresak irabaztea bermatzen zuena —helegitearen ebazpenak arrazoia eman digunez, atzera bota ahal izan dugu—; pleguetako puntu horrek enpresak biltegi bat Gernika-Lumon edo bertatik 5km-ra izan behar zuela jasotzen zuen, egungo enpresa dagoen distantziara, alegia. Honek ez dio zerbitzuaren kalitateari erantzuten ezta lurraldetasun irizpide bati. Gainera, ebazpenak dio udalak iragarkian informazio gutxi eman duela eta, ondorioz, beste enpresak aurkeztea zaildu egiten dela.

Argi du tokiko ekonomia bultzatzea ezinbestekoa dela, baina pleguak manipulatzeko ez da bidea; ez da inolako irizpiderik ezartzen —hizkuntza, berdintasuna, ingurumena, klausula sozialak...— bai, ordea, enpresari mesede egitea bideratuta dauden baldintzak. Lurraldetasunean balitz pleguetako baldintzaren arrazoia, zergatik zuzenean aukeratu dituzten enpresak ez dira bertokoak? Zergatik beti kontratatzen den arkitektoa Donostiakoa da? Urtero Sevillara joan behar al da inkesta bat egiteko? Eta letren etxolako marrazkien diseinua egiteko, Colombaraino joan behar da? Hori da Udal Gobernuarentzat lurraldetasuna kontuan izatea? Argi dago interesak ez doazela hortik.

## **📖 LEGE AIPAMENA:**

2018ko maiatzaren 8ko 058/2018 Ebazpena, Euskal Autonomi Erkidegoko Kontratuen Inguruko Errekurtsoan Administrazio Organoen titularrak emandakoa, kontratuaren pleguen aurka jarritako errekurtsuari erantzunez.

## **👥 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

- Behar baino prezio altuagoa ordaintzen zaio enpresari, lehiarik ez dagoelako.
- Adjudikatzailea Alkatearekin zorretan geratzen da entxufe bidez kontratatuta delako.
- Ez da zerbitzurik onena eskaintzea bermatzen, ez eta aukera berdintasuna.



# 11. *Entxufismoa: jubilatuen taberna*

*Jubilatuen taberna behin eta berriz izan da hizpide herrian; izan ere, pleguek euskara bermatzea baldintza ezinbestekotzat jotzen duten arren, praktikan ez da bermatzen. Udal Gobernuak ez du hau konpontzeko ezer egin; are gehiago, egun daudenak gune publiko hau ustiatzen jarrai dezaten ahaleginak eta bi egin dituzte, kontratazio prozesua horretara bideratuz.*

2013tik kudeaketa eramaten duen pertsonari era irregularrean esleitu zitzaion zerbitzu hau. Epaiak, prozesu honetara aurkeztu zen beste pertsona baten salaketari erantzunda, zioen adjudikatzaila prozesutik kanporatua izan behar zela, euskara jakitea derrigorra zelako eta ez zuelako hau bermatzen. PNVk ere, oposizioan zegoenean Osoko Bilkurara eraman zuen euskararen gaia behin eta berriro. Onartezina zeritzen jubilatuen tabernan euskaraz ez zekien inor egotea; orain, ordea, ontzat ematen du euskaraz zerbitzua ez bermatzeari.

2017ko azaroan kontratua bukatu zen, beraz, aukera ona zen langile euskaldun bat jartzeako. Azken urteetan argi geratu da pleguetan ezartzen zen hizkuntza irizpidea ez zela nahiko zerbitzua euskaraz bermatzeko, eta, beraz, zerbait aldatu beharra zegoela. Alkatearen eta Udal Gobernuaren hautuak, ordea, ez zeukan horrekin zer ikusirik: 6 hilabeteko kontratu txikia egin zioten hizkuntza irizpideak bermatzen ez zituen pertsona berberari; gainera, 6 hilabetetako epea pasata, bertan jarraitu zuen hautaketa prozesu berria garaiz egin ez zutelako.

2018ko martxoan berriro atera zen tabernaren kudeaketa lehiaketa publikora. Oinarrietan ez da ezer aldatu, beraz, Euskara ez da bermatuko; gainera, taberna baten kudeaketan zentzurik ez duten hainbat irizpide baloratu ziren era subjektibo batean. Honi esker oso erraza da esleitu nor izango den kontrolatzea. Honela, prozesua hasi zen momentutik argi zegoen esleitu nor izango zen. Esleipenerako puntuazioaren % 49 langile bakoitzak egin beharreko lanen deskribapenari edo tabernako lanak nola burutuko diren adierazteari eman zaizkiolako —tabernaren kudeaketa nolakoa izan behar den argi azaltzen da pleguetan, beraz, ez du zentzurik ia puntuazioaren erdia horren azalpenari ematea—.

## HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:

- Adjudikatzaila Alkatearekin zorretan geratzen da.
- Ez da zerbitzurik onena eskaintzen duena kontratatzen.
- Ez da aukera berdintasuna bermatzen; gainontzeko herritarrek ez dute aukera errealik irabazteko.
- Jubilatuen tabernan ez da, berriz ere, zerbitzua Euskaraz ematea bermatuko.





# 12. Diru laguntzak

***Udal gobernua momentuan erabakitzen du diru laguntzak zeini eman eta zeini ez, eta baita zenbait tekoak izango diren ere; horrela diru-laguntza jasotzen duenak argi dauka mesede bat egin diotela eta edozein momentutan, eman dioten bezala, kendu diezaioketela ere.***

Diru-laguntza “izendunak”, urtero-urtero elkarte batzuei ematen zaizkienak, ez dira aurrekontuan jasotzen eta ondorioz alkateak lagunak egiten jarraitzen du, diskrezionalitatea azpimarratuz. Legez kanpokoa den arren, kontuhartzaileak bere babesa ematen dio.

Planifikaziorik ez dago, helbururik ez da zehazten eta bete beharko luketen helburuak bete dituzten ere ez da ebaluatzen ondoren. Beraz, diru-laguntza jasotzen duenari argi geratzen zaio alkateari mesede bat zor diola, eta edozein gaitan kontra eginez gero, laguntza hori galtzeko arrisku handia duela —aipatu beharra dago talde askorentzat diru laguntza horiek ezinbestekoak diela biziraupenerako—.

Kirol arloan, adibidez, 2016an Kirol Patronatutik 228.000€ eman ziren diru-laguntzetan, udaletik 100.000€ baino gehiago —ekintza puntualetarako batzuk, besteak, ordea, funtzionamendu orokorrerako—. Honek salatutakoari erantzuten dio: dagokion markoan eta gardentasunez banatu beharrean Udal Gobernuak diru laguntzak kontrolerako erabiltzen dituela. Horrela, gainontzeko kirol elkarteek ez dute modurik jakiteko guztira zenbat, zelan eta ze irizpideren arabera banatzen den dirua.

## **🏛️ LEGE AIPAMENA:**

Arlo honetan ere udal gobernua ez du legea inondik inora betetzen. Legearen arabera diru-laguntzak emateko prozedura arrunta lehiakortasunean oinarritutakoa izan behar du (“concurrència competitiva”). Baina gure udalean horrelako prozedurak salbuespenekoak dira, 3-4 diru-laguntza kenduta (eta diru gutxiakoak gainera) beste denak zuzenean ematen dira.

## **👤 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

- Elkarteek ez dute diru-laguntzen hartzaile izateko aukera berdintasunik eta diru publikoa helburu jakinik gabe xahutzen da.
- Diru laguntzak eman ostean ere ez dira era argian publikatzen, beraz, ezinezkoa da jakitea arlo jakin batean zenbat diru eta nori eman zaion.
- Legearen irizpideak beharrean, Udal Gobernuko kideenak erabiltzen direnez, elkarteek edozein momentutan diru laguntza gal dezakete, honek erabat Udalaren menpeko egiten dituzte eta ez dute askatasunik hainbat gaitan posizionatzerako orduan.



# 13. Zentsura

*Asko dira legegintzaldi honetan Gernika-Lumoren zerbitzari moztarrekin jantzita, “guerniquesismoaren” leloarekin ahoa beteta, gure herriko botere hierarkiaren goi mailan kokatuta, Gernikako gobernuaren inposizio jarreraren adibideak.*

## • OSOKO BILKURETAN HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA BIDEOEN ZENTSURA

Alkateak berak ezarritako irizpideak ere ez ditu betetzen Osoko Bilkuretan herritarrek parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko; nahi duenean, edo interlokutorearen arabera, moldatzen ditu.

-Herritarren interbentzioak aktan jasotzea eragozten du (nahiz eta inoiz egin izan duen).

-Bidegorriko plataformako kideei ez zieten hitz egiten utzi (nahiz eta bere irizpideak jarraituta eskaera egin eta kopia bat idazkariari aurkeztu zioten); hori gutxi balitz, Osoko Bilkura telebistan zentsuratu zuen eta herritarrekin egon zen ika-mika moztu zuen.

-Legea zorrotz bete behar den aitzakipean jendeari berba ukatzen dien bitartean, maiatzeko Osoko Bilkuran baimenik ez zuen pertsona batek hitz egitea onartu zuen alkateak, ez zitziolako eragile horrekin eztabaidarik izatea komeni.

Bere interesen arabera herritar batzuei berba egiten uzten die, eta beste batzuen hitza moztzen du.

## • GUSTUKO EZ DITUZTEN IKURREN ZENTSURA

Segundo Olaeta Musika Eskolak antolatzen duen Bakearen Doinuak ikuskizunean Busturialdeko Joal-dunek parte hartzeko gonbitea jaso zuten; entseguan, ordea, zeramaten ikur bat kentzeko agindua jaso zuten, Arrano Beltza zeramana, hain zuzen. Dirudienez, zinegotzi arduradunak, gobernuko kultur zinegotziak, “alderdi politiko baten ikurtzat” zeukana kentzea eskatu zien Musika Eskolako ardura-dunei. Hala, taldeak erabaki egin behar izan zuen: ikur gabe aritu edo ikuskizuna egin gabe geratu.

## • OLENTZEROREN KOLONIZAZIOA ETA KULTUR TALDE BATZUEI BAZTERKETA

40 urte baino gehiagoz Olentzero antolatu duen taldeari kultur ekintza hori kendu egin diote. Ez da, gainera, talde honek jaso duen eraso bakarra: jaietako programatik bere ohiko ekintzak kendu zituzten, Jai Batzordeko kide aktibo diren arren, egiten zituzten ekintzetarako dirulaguntzak ere kendu zaizkie, beste talde batzueri ekintza bera beste leku batetan antolatzearen ematen bazaie ere. Argi dago Presoen aldeko ohiua eta mugimendua zentsuratu nahi izan dutela, eta, horretarako, dituzten bitarteko guztiak erabili dituztela.

## • KARTELAK EDUKIAREN ARABERA KENTZEA

Hainbat eta hainbatetan salatu izan da eragileen partetik Gernika-Lumoko Udal Gobernuak nahieran kentzen dituela jartzen diren kartelak. Gernika-Lumo herri bizia da, eta, antolatzen diren ekintzak iragartzeko, propaganda ezinbesteko tresna —esan beharra dago Udalak berak kartelak jartzen dituela ekintzen iragarpenerako—. Eragileenak, ordea, kendu egiten dira. Irizpiderik gabe, nahi dutenean eta nahi dituzten kartelak. Emakumeen erasoan aukako protokolokoak, kontzertuetakoak, ASTRAko prozesu parte hartzailearen informazioa, martxoak 8ko ekimenen berri ematekoak, eta abar luze bat.



# 14. Erabakiak atzera botatzea

*Alkateak arlo ezberdinak delegatzen ditu zinegotziengan; ustez beraienganako konfiantza duelako eta kudeaketa-rako gaitasuna dutela uste duelako aukeratu dituelako zerrendakideak. Udal honetan, ordea, erabaki denak alkatearengandik pasatzen dira; irizpide nagusia: bere gustukoa edo interesen arabera ote den edo ez. Ez zaio axola erabaki horiek zein markotan hartu diren, teknikarien oniritzirik duten, herritarrekin edo eragileekin adostuak diren edo bestelako lanketei erantzuten dien.*

Behin eta berriro ikusi ditugu hartu eta, alkatearen aginduz, inongo arrazoiketa gabe eta arduradunekin aztertu edo azalpenik eman gabe atzera botatzen diren erabakiak:

## • DON TELLOKO SEMAFOROA

Eskola Bidea ekimenaren eskaeraz 2017ko aurrekontuetan jaso zen, bidegurutze hori arriskutsua zela eta, semaforo bat egiteko diru izendapena. Handik hilabete batzuetara azalpenik eman gabe ez zela egingo esan zuen.

## • SEBER ALTUBE ETA ALLENDE SALAZARREKO AUTOBUS GERALEKUA

2017ko kurtso hasieran, Zeharretan (Seber Altube eta Allende Salazar eskolen ondoan) autobusentzako geraleku bat egitea erabaki zen, baita obrak egiten hasi eta lurra margotu ere, baina kasu honetan ere Alkateak azken momentuan ez egitea erabaki zuen, nahiz eta hitza emandako eta adostutako proiektua izan.

## • JAI BATZORDEKO LIBURUXKA

Duela urte batzuk Jai Batzordean erabaki zen —eta urtero erabaki hori berretsi izan da— jaietako programaren liburuxka prezio sinboliko batera salduko zela buzoneatu beharrean; benetan interesa duenak hartu eta paper xahutze neurrigabeari muga jartzeko. Alkateak, ordea, aukera izan duenean, Jai Batzordearen gainetik pasatuta, erabakia atzera bota du.

## • ERAKUNDE AUTONOMOETAKO AUTONOMIA EZA

Erakunde autonomoetan ere argi geratzen da autonomia hori ez dela guztiz erreala; Kirol Patronatua eta Lanbide Ekimenetako batzarretan argi ikusten dugu erabakiak ez dituela zinegotzi arduradunak hartzen: aurrekontuetan, adibidez, edozein aldaketa burutzeko edo erabaki garrantzitsuak hartzeko Gorroño anaien “baimena” behar du zinegotziak eta gaiak mahai gainean geratzen dira. Kultura arloarekin zer ikusia duten gai batzuetako erabakiak ere zuzenean hartzen ditu alkateak; esaterako: “caseta de las letras” delakoan; zinegotzi arduradunak ez zuen horren berririk, ezta Kultur Etxeko langile eta bertako lehendakariak ere.



# 15. *Udal baliabideen erabilera*

*Udal baliabideak publikoak dira, guztion diruz erosten dira, eta, beraz, logikoa da pentsatzea denon esku egon behar direla. Erabilera hori kudeatzerakoan neurritz kanpoko arazoak sortzen badira —galerak, gauzak apurtzea, egoera onean ez itzultzea...—, arautu daiteke guztion artean. Udal Gobernuaren erabakia, ordea, bestelakoa da: askotan trabak, beste baliabide batzuk ez dira uzten, eta beste hainbat kasutan eskatu duenaren arabera erabakitzen da.*

## • HERRIKO ELKARTEEI BALIABIDEAK UZTEA

Duela gutxi megafonia berria erosi da, aurrekoa apurtu zelako. Udal Gobernuaren erabakia megafonia hori inori ez uztea izan da, eta horrela egin dute orain arte, elkarte batzuek eskatu izan dutenean, behintzat. Sarritan, gainera, gezurra esan izan da: okupatuta dagoela, adibidez. Hori bai, elkarteei trabak jartzen zaizkien arren, agente pribatuei bai utzi izan zaie.

Gai honetan dagoen arazoa arautegi baten falta da, ez dago irizpiderik; herritar zein elkarteek ez dakite ze baldintza bete behar den horiek erabiltzeko. Hortaz, egungo gobernuaren esku geratzen da utzi edo ez uzteko erabakia, edo, hobeto esanda, alkatearen esku. Talde batzuek ez daukate arazorik, beste batzuek, berriz, ez dituzte erraz lortzen ekintzetarako behar dituzten baliabideak.

2018ko irailean udal baliabideen erabileraren inguruan eztabaidatzeko eta elkarteekin lanketa bat egiteko eskaera formala egin dugu, ikusiko da ze bide hartzen duen.

## • BESTE UDALEI BALIABIDEAK UZTEA.

Busturialdean herri txiki asko dago, eta, normala denez, ez dituzte udal handiok ditugun baliabideak. Ohikoa da herrien artean baliabideak uztea; esterako Gernikako jaietan Bermeoko eszenatokia erabiltzen da eta herri txikiek sarritan eskatzen dituzte Gernikako baliabideak.

Orain arte arazo gabe eta naturaltasunez egiten zenari trabak jartzen hasi zaizkie eta mendekua da, ez besterik. Alkateak dokumentu bat sinatzeko eskatu zien eskualdeko herriei —merkatu plaza dela eta—; hori bai, aurretik ezer aurkeztu, eztabaidatu eta adostu gabe. Herri batzuek ez sinatzea erabaki zuten, eta, orduz geroztik, ohiko gauzak eskatu dituztenean, trabak jarri zaizkie edo zuzenean ezetz esan zaie.

Argi dago, beraz, udal baliabide publikoak erabiltzen uztearen atzean interes alderdikoiak eta mendekua daudela. Gustatzen zaidanari bai, besteei hor konpon.



# 16. Informazio eskubidea

***Informazio guztia ezagutzeko eskubidea duen herritarrak ere jakin egin behar du, nola egikaritu behar duen informazio eskaera, zein epe duen administrazioak erantzuteko eta erantzun ezean nora jotzeko eskubidea duen. Argi dago, eskabideen aurrean isiltasuna erantzuten duen Gernika-Lumoko Udalak ez dituela bermatzen aipatu eskubideak.***

Hainbat eta hainbat dira arlo honetan aurrerapausoak ematen ari diren herri eta hiriak. Tresnak bermatu eta horien berri emateko hainbat eta hainbat baliabide jartzen dituzte herritarren esku: gardentasun atariak, partaidetza publikorako araudiak, herritarren eskubide-gutunak... Gernika-Lumok, ordea, Gorroñoren "sentido común" erabiltzen du honetarako ere. Informazioa nahieran eman edo ezkututzen du, eta interesatuek ez dute behar dutenaz enteratzeko aukerarik.

## **LEGE AIPAMENA:**

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa. III. kapitulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. *Oro har, eskabideak hilabeteko epean tramitatuko dira; isiltasunak eskabidea ezetsi egin dela esan nahiko du.*
- 128/2016 dekretua, irailaren 13koa, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearena - Informaziorako sarbidea izateko eskubidea erabat edo neurri batean ukatu izanagatik errekurtsioak aurkeztea.
- Eskatzailea ados ez badago, edo arestian adierazitako gehieneko epean Udalaren erantzunik jaso ez badu, erreklamazioa aurkeztu ahalko dio Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari, aukeran, administrazioarekiko auzi-bidean aurka egin aurretik.
- Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari erreklamazioa aurkezteak administrazio publikoen organoek emandako administrazio-egintza berrikusi eta zuzentzea du xede. Administrazio-errekurtsioak ordeztu ditu eta administrazioarekiko auzi-bidetik aurkaratu aurretikoa da.

## **HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

- Herritarrek ez dakite ze tresna dituzten eskura informazioa jasotzeko.
- Udalak, sarritan, isiltasunarekin erantzuten du eta, modu horretan, herritarren informaziorako eskubidea urratzen du.
- Informazio ezak kudeaketa gardena eragozten du eta herritarrek ez dituzte proiektu eta egitasmoak ezagutzeko ez baliabide, ez aukerarik.



# 17. *Kale eta espazio publikoen erabilera*

***Ohitura bihurtu du Gernika-Lumoko Udalak euren gustuko baimen eskaerak onestea eta hain eroso egiten ez zaizkionak edota boom mediatiko handiegia ez duten herriko taldeen inizatibak isildu nahi izatea. Hainbat dira horren adibideak, kaleren bat ixteko eskatu eta udalaren partetik ezezko erantzunak jaso izan dituztenak.***

La Cuadri del Hospik egindako kaleak ixteko eskaria; 20.000 pertsona batu zituen Ongi Etorri Errefuxiatuak ekimena; Juan Kaltzada kaleko merkatariek kalea ixteko eskaria pintxo potean segurtasuna bermatu eta San Juan egunean ospakizunak egiteko; Kirol elkarteek 32 urteren ondoren Milia antolatzeke egindako eskaera... ez dutenez behar adinako zarata mediatikorik sortzen, ez dute merezi Udalaren arretarik; ezezkoa jasotzen dute edo ekintza bera kolokan jartzeko moduko erantzun eskasak —eta berandu, ez hilabeteko epean, behar luketen moduan—, euren ekintza erabat baldintzatuz, edo, zuzenean, gezurrekin erantzunez.

Desafio de Guerreros, Duatloia... bezalako enpresa pribatuen inizatibek parez pare dituzte ateak zabalik eta udal baliabide zein herri erabilera mugagabeen jabe izan ohi dira. EAjk berak ere, urte osoan okupatu du espazio publikoa kaleko erakusketa batekin, inolako baimen edo tramitazio gabe; baina herriko elkarteak dira eragozpenak dituztenak.

Bideak erabiltzeko eskubideak araututa behar du eta denok jokatu beharko genuke arau berdinekin, eskubide berdinekin, aukera berdinekin. Horretarako ere ordenantzaren bat adostu beharko litza-teke interesatutako eragile eta norbanakoen elkarlanarekin. Udal Gobernuak, ordea, erosoago dago horrela: gustatzen zaizkion ekimenei —publizitatea handia duten eta, orokorrean, enpresa pribatuek antolatzen dituztenei— alfonbra gorria jarrita eta gustatzen ez zaizkionei, oztupoak.

Behin eta berriz aldarrikatu dugu hau arautzeko ordenantza baten beharra, baina Udal Gobernuak erosoago dago irizpide orokor eta objektiboak beharrean beraien intereseko baimen eta erantzunak emanda. Hainbat eta hainbat dira kale erabilera arautzeko ordenantza duten herriak eta, horrela, herritar zein elkarte guztien eskubideak bermatzen dituzte: Tolosa, Basauri, Mutriku, Zizur Nagusia...

## **👤 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

- Herrian zerbait antolatu nahi duten elkarte zein norbanakoek ez dakite ze irizpideren arabera erabili dezaketen espazio publikoa, zeintzuk diren baldintzak, betebeharrak.
- Ez dago aukera berdintasunik gauzak antolatzerakoan, irizpideak finkatuta ez daudelako; horren ondorioz elkarte batzuek zailtasun handiak dituzte gauzak antolatzeko.



# 18. Gardentasuna

***Hainbat erakundek legediak dioenari men eginda, eta jardun oneko irizpideak jarraituz, Gardentasun atariak sortu dituzte web orrietan. Gernika-Lumoko udal gobernu honek, baina, legeak agindu arren, ez du beharrezkotzat jotzen herritarrei azaltzea zer egiten duen, zenbat kobratzen den, batzordeetan onartzen dena, zein den plangintzaldiko plana...***

Hainbat esparrutako informazioa da web orrian era argian argitaratu beharrekoa: soldatak, aktak, fakturak, planak, kontratuak... Gernika-Lumoko hauek bilatzea ia ezinezkoa da eta denbora luzez jardun behar da web orrian. Badirudi, egiten dutena ez dutela erakutsi nahi. Horren adibidea da zinegotziek kobratzen dutena poltsa orokorrean jartzen dutela, zehatz eta argi jarri beharrean.

Udal Legea zein Kontratazio Publikoaren Legean ezarritako gutxienekoak ez daude jasota kontratazioaren profileen, kontratu nagusiak ageri dira eta erabakiekin bardin, jaso beharrean tarteko dokumentazioa (txostenak, iragarkiak, baztertzeak, arrazoiak, balorazioak....) herritarrek ezagutu dezan zergatik hartu duen hartu duen erabakia Udalak. Udal programaren eta Gobernu onaren jarduna antolatzeak irizpideen inguruan ere arrastorik ez.

## ZINEGOTZIEN ORDAINSARIEN INGURUKO INFORMAZIOA:

GOI KARGUAK ETA ARDURADUN NAGUSIAK	URTEKO SOLDATA GORDINA
JOSÉ MARÍA GORROÑO ETXEBARRIETA	67.087,03 €
IÑAKI GORROÑO ETXEBARRIETA	62.146,42 €
ALBERTO AZUETA GANDARIAS	31.073,28 € (% 50eko jarduna)
IÑIGO MAGUNAGOIKOETXEA AGIRRE	62.146,42 €
IRATI BIDAURRETA MADRIGAL	48.581,14 €
Osoko Bilkura (hilean behin). Liberatuta ez dauden zinegotziek	283,98 € (hilero)
Erakunde autonomoetako juntak Bozera maileen Batzordeak	31,55 € (batzorde bakoitzeko)
Gobernu Batzordea. Liberatuta ez dauden zinegotziek: Ana Hormaetxe, Maria Uribe eta Leire Bidaguren.	101,44 € (astero)

## 👥 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:

-Gardentasun legea urratzen da, ondorioz, zuzenean, herritarren informaziorako eskubidea.



# 19. *Berdintasun zerbitzua*

*Urteetan berdintasun zerbitzuak bai herritarrei zein udaleko langileei emandako zerbitzua bertan behera utzi zen, nahita. Gernika-Lumon berdintasun zerbitzua zuzenean edota mankomunitatearen bidez izatea 4/2005 Legeak ezarritako baldintza nahitaezkoa da. Egungo gizarte-ereduak badu berdintasun politikak ezartzeko berariazko beharrik eta, udal gobernuak, urte betez zerbitzu gabe utzi du.*

2017ko aurrekontuetan 6 hilabeterako zerbitzuaren kostua aurreikusi zuten, beraz, bazekiten ekainerako zerbitzua ematen duen enpresaren kontratua bukatuko zela eta ez zuten berritzeko asmorik, ez zuzeneko kontratazio bidez ezta kontratu berri bat aurrera eramanez ere. Horrek bere horretan 4/ 2005 Legeak ezartzen duena urratzen du, eta, hala jakinarazi genion Udalari. Euren erantzuna, mankomunitatearen bitartez zerbitzua emango zutela izan zen, baina, ez da hala izan. Orain, 2018rako azkar eta gauzak txarto eginez kontratu publikoa bideratu nahi izan da, eta, kontratua bertan behera geratu da egindako akatsen ondorioz. Irailera arte ez da zerbitzua martxan jarri.

Egun pandemia puntura iritsi den berdintasun politikekin udal gobernu honek duen konpromisoa hutsaren hurrena da; area gehiago, egun bizi den errealitateari iseka egin eta ostruken antzera burua ezkututzen dute, euren ezintasunaren seinale. Eskerrak puntu honetara iritsita Gernika-Lumoko eta, oro har, mugimendu feministak inizatiba hartu eta toki erakundeak egin beharrekoak bere gain hartu dituela arazook konponbidean jarri nahian.

## **LEGE AIPAMENA:**

4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOaren arabera Gernika-Lumok Berdintasun Zerbitzua izan behar du. Erakundeetan Gernikak zerbitzua daukala ulertzen da, kontrakorik adierazki ez delako, eta diru-laguntzak jasotzen jarraitzen da.

## **HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK (zerbitzurik egon ez den bitartean):**

- Jazarpen protokoloak aurrera eramateko ezintasuna.
- Laguntza asistentziala etenda (zerbitzu psikologikoa ere bertan behera geratu delako).
- Udalak antolaturiko berdintasunarekin loturiko ekintzak bertan behera.
- Ikastetxeetako sexualitate hezkuntza etenda.
- Udal langileen berdintasun gaikuntza ezerezean, araudi berriak eginez gero berdintasun irizpiderik ez ( HAPO edo ordenantza berriak/eguneratuak kasurako).
- Emakumeen berdintasun kontseilua ezerezean geratu zen Udalak gai honetan erakutsitako seriotasun falta eta utzikeria dela eta.





# 20. *Osoko bilkuretan parte hartzea*

*Udal gobernua nahieran erabiltzen ditu beraiek aurrez definiturik duten osoko bilkuretan parte hartzeko irizpideak. Osoko bilkura bukaeran, herritarrek zein elkar-teeek aurrez eskaria idatziz egin badute, eta hizlariak identifikatu —hizlari horiek soilik hitz egin dezakete—, galdera edota erregua egin diezaioke osoko bilkurari. Hala dago jasota, eta hala aldarrikatu dute behin baino gehiagotan. Alkateak baina, gezurren bidez, eta momentuko interesen arabera moldatzen ditu irizpideak.*

• **LURGORRI AUZO ELKARTEA: 2015eko abenduaren 21eko ez ohiko bilkura.**

Hiru pertsonak baimena eskatu zuten arren, Osoko Bilkuran bertan “bozeramaile” bat zehaztu eta denen izenean hitz egiteko agindu zien. Beraz, arautegia beteta baimena eskatu zuten bi pertsonak ez zuten beraien ideiak adierazteko aukerarik izan.

• **BIDEGORRIXE BAI ELKARTEA: 2017ko azaroaren 30eko osoko bilkura.**

Epeetan eta forma egokian egin arren eskaria, eta, osoko bilkura osoa txandaren zain egon ostean, ez zieten hitza eman. Aitzakia, kasu horretan, baimena garaiz sartu bazuten ere Alkateari ez zitziola iritsi izan zen. Momentuan idazkariari hitz egiteko baimenaren kopia eman zioten arren, ez zuten hitz egiteko aukerarik izan.

• **PENTSIODUNAK: 2018ko maiatzaen 30eko osoko bilkura.**

Pentsiodunen kasuan, baimena ez zuen pertsona bati arazo gabe hitz egiten utzi zion, nahiz eta alkateak behin baino gehiagotan arauak zorrotz bete behar direla aldarrikatu. Argi geratu zen, batzuetan, ez dela hain zurruna eta posible dela irizpideak moldatu edo haustea.

• **BUSTURIALDEKO UR PARTZUERGOKO LANGILEAK: 2018ko ekainaren 27ko osoko bilkura.**

Partzuergoko langileek Osoko Bilkuran galdera batzuk egiteko baimena eskatu zuten; eta Alkatea, aurrez telefonoz deituta, eta osoko bilkuraren aurreko momentuetan ere, hitz egin ez zezaten saiatu zen. Hitz egiteko aukerarik izango ez zutela adierazi zien, osoko bilkuran ezin omen direlako galderak egin, proposamenak bakarrik. Azkenean, eta langileek pleno aurretik banatutako testua EH Bilduk irakurriko zuela ikusi zuenean, langileek galderak egitea baimendu zuen. Oposizioaren, eta langile zein prentsaren presentziak behartuta.

👥 **HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

-Herritarrek ez dakite Osoko Bilkuretan parte hartzeko zehazki zeintzuk diren bete beharrekoak; okerrera, ezagututa ere Alkateak nahi eran eta momentuan bertan moldatzen dituela irizpideak, nahi duena hitz egiteko aukera gabe utzita.



# 21. Udaletxera sarbidea

***Beti salatu izan dugu Gernika-Lumoko udala ez dagoela herritarrentzako eskuragarri eta zabalik; duela urte bat arte, itxikeria hau funtzionamendu aldetikoa zen —batzuentzako oso zaila da alkatearekin edo arduradun politikoekin hitzorduak izatea—, baina, orain, fisikoa ere izatera pasa da udaletxeko sarreran pasatzea eragozten duen kartela jarrita.***

GERTU zerbitzua zabaltzearen aitzakipean, debekatu egin dute udaletxeko goiko solairuetara pasatzea; hala adierazten du eskailera oinean dagoen kartelak: "BAIMENDUAK BAINO EZ" debeku seinale batekin lagunduta.

GERTU zerbitzuaren helburua herritarrek udalarekin duten harremana erraztea da, honetarako tramite guztiak leku bakar batean egiteko aukera zabaltzen da, teknikariekin batzeko gelak atondu, beheko solairuan komunak jarri... era honetan, herritarrek behar zuten ia dena eskuragarri izango zuten, udaletik buelta-bueltaka ibiltzeko beharrik gabe.

Errealitatea, ordea, bestelakoa da: ez dago teknikariekin biltzeko gelarik, ez komunik, herritarrek ez dakite oraindik nora jo behar duten... Eta honen guztiaren aurrean, udalak hartu duen erabakia sarrera mugatzea da. Dagoen arazo bati konponbidea eman beharrean, debekuekin erantzuten da. Jar zitekeen kartel bat zerbitzu berriaren funtzionamendua azalduz, jendea GERTUra bideratzeko eskatuz... baina debekua aukeratu da. Udal Gobernuaren funtzionamenduaren adibide argia: itxitasuna.

GERTU zerbitzua beti bultzatu izan dugu, herritarrei erraztasunak ematea ezinbestekoa dela uste dugulako, eta, logika horretan, ulergarria deritzogu jendearen sarrera ordenatzea, baina horren aitzakipean herritarren sarrera mugatzea onartezina da. Zein da helburua? Zer gertatzen da politikariengana zuzenean jo nahi duten herritarrekin? Ez ote da tresna bat, politikariak beraien bulegoetan lasai egoteko eta aurpegia eman gabe interesatzen zaien jendeari bakarrik sartzen uzteko? Ordena mantentzea gauza bat da, herritarrei zentzu bako muga eta debekuak jartzea, oso bestelako kontua.

## **👤 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

-Udaleko funtzionamendua ez dago ondo zehaztuta eta, ondorioz, zerbitzuak ez daude herritarrengandik gertu.

-Ez dago udaleko arloetako arduradunekin edo arduradun politikoekin biltzeko eta eztabaidatzeko azpiegitura egokirik, honek instituzioa herritarrengandik urrun kokatzen du.

-GERTU zerbitzua hankamotz dago, ez daude proiektuak jasotzen zituen espazioak eta, ondorioz, ez dago behar bezalako antolaketarik herritarren arreta egokia izan dadin.



# 22. *Diru xahuketa kontratazioan*

*Udal gobernua kontratazioa ere bere mesedetan erabiltzen du, interes orokorrak alde batera utzita. Azken helburua ez da —izan beharko litzatekeen moduan— zerbitzuak ahalik eta egokien, baldintza onenean eta prezio lehiakorrenean lortzea, baizik eta enpresa eta pertsona jakin batzuk entxufatzea.*

Horrela, udaleko arlo jakinetan klientelismoa nagusi da. Udaleko arlo estrategikoetan nabarmena da salatzen duguna: kale garbiketa, lorezaintza eta kale mantenimendua. Arlo hauetako adjudikatzaileak beti dira berberak, lizitazioak aldioro ateratzen dira baina lizitazioa irabazten dutenak beti dira enpresa berberak, “bizi osorako adjudikatzaileak” dira, eta horiek mantentzea da helburua ez kompetentzia bermatzea.

Eta guzti hau kontratazioa formalki egiten denean! Gernikako udalak 2016. urtean, adbidez, 53 prestazio eta hornidura ordaindu zituen adjudikazio tramiterik gabe, hau da “a dedo”. Guztira 3.114.694,41€ urte bakarrean diskrezionalki banatua. Honek, askotan azaldu dugun bezala, diru xahuketa dakar; izan ere, frogatuta dago kontratazio publikoaren bitartez %30 inguru aurrezten dela. Beraz, milioi bat euro inguru botatzen dira.

## **🔗 LEGE AIPAMENA:**

EH Bilduk aukera izan duenean helegite administratiboa jarri izan du lizitazio oinarrien kontra. Kasu guztietan arrazoia eman digute:

- Resolución 040/2017, de 23 marzo de 2017, del Titular del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi / Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa ([http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-3084/es/contenidos/resolucion\\_oarc/40\\_2017/es\\_def/index.shtml](http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-3084/es/contenidos/resolucion_oarc/40_2017/es_def/index.shtml))

- Resolución 058/2018, de 08 mayo de 2018, del Titular del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi / Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa.

## **👥 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

-Sektoreko beste enpresak kaltetzen ditu eta lehiari tarterik ez zaio uzten; horrela, ez da bermatzen herritarrek zerbitzu onena izan dezaten.

-Zerbitzuak eta hornidurak garestiago ordaintzen dira, gernikarron kaltetan: 2016an milioi bat euro inguru xahutu edo oparitu zen, ordutik hona gutxi aldatu da egoera.



# 23. *Ota/tao zerbitzua*

***2011tik kontratu gabe dago OTA zerbitzua. Honek, hainbat ondorio ditu: alde batetik, legez kanpoko jardunean dago, beste behin, Udala; bestetik, ez da aparkalekuaren arazoaz eztabaidatzen ezta erabakirik hartzen; hori gutxi baliz, 2015eko abenduaren 12ko Tokiko Gobernu Batzordean 2012-2014 urteetan sortutako zorra onartu zen: 603.399,33€koa; ordutik 4 urte pasatu direla jakinda, egungo zorra bikoitza izan daiteke.***

Urteak daramatzagu OTA-TAO zerbitzuaren auzia behingoz konpontzeko eskatzen; Udal Gobernuaren partetik jaso dugun erantzuna, ordea, utzikeria izan da. 3 urte baino gehiago daramatzagu horretan daudela eta laster kontratua eta ordenantza berria egingo dituztela entzuten.

Duela 7 urte kontratua bukatu zitzaion arren, enpresa bati ordaintzen zaio zerbitzuagatik; ez dago esan beharrik hori legez kanpoko delatzen. Ordainketak, gainera, udalerako oso baldintza txarretan adjudikatu zen eta jada iraungita dagoen, kontratu baten arabera egiten dira: enpresari diru irabazi minimo batzuk bermatzen zaizkio, diru-sarrerak direnak izanda ere. Gaur egun, baldintza horrek udal ogasunari kalte garrantzitsuak sortzen dizkio diru-sarrerak nabarmen jaitsi direlako. Hilean-hilean, zorra handitzen doa eta udalak ez dio inongo irtenbiderik ematen. Kontu hartzaileak egindako txostenaren arabera 200.000€ inguru piltzen dira urtero.

Kontratazio publikoak berme batzuk eskaintzen ditu: entxufismoa sahiestea, aukera berdintasuna bermatzea, zerbitzu onena prezio hoberenean lortzea... Egoera honek, zuzenean herritarrak eta zerbitzua kaltetzen ditu: alde batetik, ez delako beharrianen arabera kontraturik egiten; eta, bestetik, kontraturik ez edukitzea garestiago ordaintzen delako (%30 batz bestea).

2018ko uztailean enpresari auditoria bat egin eta benetako zorra zenbatekoa den ezagutzeko kontratu txiki bat onartu zen; lana, ustez, hilabete batean egingo zuten eta, txosten hori izanda, berehala kontratazio pleguak eta ordenantza etorriko ziren. 4 hilabete beranduago, egoera bera da. Ez da inolako aurrerapausorik eman.

## **👤 HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

- Lehiakortasuna kaltetzen du, Gernikarrontzat gastu gehigarria eraginda.
- Udalak zor bat ofizialki onartu eta gero zuzena ez zela adierazi arren, oraindik ez dakigu ondo zein den egoera, eta balizko zorra piltzen doa.
- Aparkatzeko arazoari ez zaio irtenbiderik ematen, ez da eztabaidatzen ezta arautzen ere.
- Kontratazio hau ere legez kanpoko egoeran dauden zerranda luzera gehitzen da.



# 24. *Udal aterpetxea*

*Bi urte pasatxo darama kontratu gabe, pertsona berdin-en eskuetan, legez kanpoko egoeran, kudeaketa kontratu publikora atera gabe eta gainontzeko herritarrei aukerarik eman gabe. Hori gutxi balitz, jabari publikoko lokalak ustiatzeko ordaintzen den kuota parkatzeaz gain, urtean ia 22.000€ ordaintzen zaizkio, nahiz eta irabazi denak ere berarentzat diren.*

2015. urtera arte adjudikatzailleak kanon bat ordaintzen zion udalari aterpetxea kudeatzeagatik, udal jabariko lokalen ustiapenean ohikoa den bezala. Enpresa honi ez zitzaion kontratua luzatu eta bere ordezkari Alkatearen lagun bati era zuzenean eman zitzaion kudeaketa; ustez, urte beterako.

Kontratu hau, gainera, baldintza oso onuragarriekin egin zen: ordura arte adjudikatzailleak kanona ordaintzen zuen —2.250€ urtean—, ordutik aurrera udalak ordaintzen dio hilean-hilean: 1.815€. Honela, adjuditzaile berriak bezeroen tarifak eta udalaren prezioa jasotzen du; gainera, gastuak ere udalaren kontura doaz eta diru publiko handia inbertitu da aterpetxearen instalazioak hobetzen.

2015eko irailean urte baterako kontratu txikia egin zen; orduan hasi ziren lehen aldiz enpresari ordaintzen, bideragarritasun txosten bat egingo zuen aitzakipean; txosten hori 8 orrialdeko dokumentu bat da, zeinetan agertzen den informazio bakarra aterpetxera datorren jende kopurua den. Horretarako ordaindu zitzaizkion 21.780€ lehen urtean. Hori nahiko harrigarria da berez, egin den lanak ez duelako inondik inora ordaindu dena balio. Hurrengo bi urteetan beste 43.560€ ordaintzeak, ordea, ez du izenik. Dirutza hori ordaintzeko aitzakia ustezko bideragarritasun txosna bada, zergatik jarraitu zaio ordaintzen hurrengo bi urteetan?

Txostenaren arabera: urtean 4.114 bisitari, gaueko 18€ kobratzen direla kontuan izanda 74.000€ pasatxo lortzen dituzte tarifetatik, udalak ordaindutakoa gehituta eta gastuak eta inbertsioak udalak egiten dituela kontuan hartuta, hiru urtetan zehar urtean 95.800€ irabazi dituztela kalkulatu dugu. Udalak urteroko kanonari uko egin dio, gainera, enpresari ordaintzen dio jadanik diru sarrera ugari eskaintzen dituen negozio bat kudeatzearen. Aipatu beharra dago, gainera, oso kritika txarrak jaso dituela hainbat forotan; beraz, susma daiteke kudeaketa ez dela gutzitza ona.

## HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:

- Kontratua bukatuta ere ez dute lehiaketarako presarik, Alkatearen lagunak jarraitzen duen bitartean.
- 2014ra arte aterpetxea kudeatzen zuen enpresak 2.250€ ordaintzen zituen; orain dagoenak urtean 21.780€ jasotzen ditu; ondorioz, Gernikarrok urtean 24.000€ galtzen ditugu.
- Kontratu gabe jarraitzen du, legez kanpo, eta herritarrek edo enpresa txikiek ez dute bere kudeaketa lortzeko aukerarik, lizitaziora ateratzen ez delako.



# 25. *Bidaia “ofizialak”*

*Bidaia ofizialak ez dira planifikatzen herriko interesen arabera. Gainera, ondoren ere, ez da inolako balorazio edo jarraipenik egiten. Bidaia ofizialak egiten diren askotan hauek ez dira publiko egiten eta herritarrak zein oposizioa, kasurik onenean, kasualitatez enteratzen dira. Azken adibide argiena zinegotzi batek senitarteko baten bidaia diru publikoz ordaintzea.*

Bidaia instituzionalek aipamen berezia merezi dute gure herrian. Gure udalean, eta herri celebrity-aren aitzakian, aspaldi hartu da atzerrira joateko ohitura. Ustez bidaiok nahitaezkoak dira baina ez dago planteamendu zehatzik, ezta irizpiderik ere.

Bidaiak ez dira planifikatzen, ez da beharrianaren inongo azterketarik egiten: zein den pertsonarik aproposena, zeintzuk diren bidaiaren helburuak, joateak merezi duen edo ez... Udal ordezkaria bidaiari joaten da baina ez daki zehazki zertarako. Ondorioz, bueltan datorrenean ez du azalpenik ematen, merezi izan duen ala ez, zer lorpen izan duen... ezer ez, fakturak pasatu eta kito.

Hori guztia ezkutuan eta kontrolik gabe. Azalpen publikorik ez da ematen eta oposizioak egin dezakeen kontrol bakarrik fakturak aztertzea da. Horrela gertatzen dira duela gutxi ikusi izan ditugunak: zinegotzien senitartekoei denon diruarekin ordaintzen zaizkiela bidaiak. Planteamendu honekin gauza logikoa da, inolako azalpenik eman behar ez dutela uste dute eta.

Ez gara diru kopuru txikiak ari, esaterako 2018ko aurrekotuetan honako diru izendapena egin da:

• **ZUZENEAN BIDAIA ETA PROTOKOLOETARAKO ERABILTZEN DENA:**

2 9121 22602 Atenciones protocolarias y represent. org. gobierno 12.800€.

2 9121 23100 Dietas, locomocion, traslados, organos gobierno 3.000€.

2 9121 22699 Otros gastos diversos, organos gobierno 16.200€.

• **BIDAIA ETA PROTOKOLOETARAKO PARTZIALKI ERABILTZEN DIREN PARTIDAK:**

5 3200 22602 Hermanamientos/anaikidetzak 7750€.

5 3301 22704 Actividades/ekintzak, bonbaketa 37.000€.

• **HERRITARRENTZAKO ONDORIOAK:**

Diru kopuru adierazgarria gastatzen den arren, inork ez daki zehazki zertan. Ziurgabetasun honek aukerak ematen ditu diruaren erabilera ezegokirako eta interes pertsonaletarako —senitartekoei bidaiak ordaintzea, kasurako—.